# la perfumería
## de Mercadona

# Badakizu zer SEKRETU dugun GABON hauetarako?



CRITERIO
Ego

# AURKIBIDEA


## 04 GABON HAUETARAKO LURRINDEGIAK DUEN SEKRETUA

### 12 *MY SOUL*

Festa hauetako makillajeen *lookak* bereganatu ditu *glitterrak*. *My Soul*, liluratzeko bilduma amestua.

### 16 LAU URTAROAK

Utz iezaiozu *MySoul* itzal-paleta koloretsuari lilura zaitzan, eta erakutsi harro zure makillaje-*lookak*, urte osoan. Has dadila ikuskizuna!

### 18 UKITU IKUSEZINA

Kalitatezko brotxak erabiltzen ditugunean, berehala nabaritzen da emaitza larruazalean. Ikasi gehiago makillaje ona izateko tresna ahaltsuenari buruz.

### 20 *BLUE SHINE*

Lore- eta fruta-usain ukituak, egur-ukituak, perfumearen intentsitate eta finkatze handiagoa, diseinu bakarrak… Blue Shine distira egiteko sortu da.

### 22 *MY MOMENT*

Zure unea bilatzeko eta aurpegiko eta gorputzeko azala behar bezala zaintzeko prest?

## 26 OPARIAK EGITEKO ARTEA

Guztiak harrituta uzteko eta Gabonak bizitzeko prest? Kosmetika-, edertasun- eta fragantzia-produktuen hautaketa onena.

## 36 HORI NAHI DUT!

Aurten etxeko txikiak ondo portatu direnez, hona hemen haiek mimatzeko Gabonetako oparien gure eskaintza berezia.







Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: T0-0789-2008



Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarrari dagozkio. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.
© Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

Zurekin pentsatuta
egindako bilduma
esklusiboak
dira Gabon
hauetarako lurrindegiak
duen sekretua.

# MY SOUL

## BLUE SHINE

## my moment

## EXTRATIME

Helburua argi zegoen: Gabonetan oparirik onenak edukitzea kosmetika-, edertasun- eta fragantzia-produktuetan. Lehenik zuei entzun dizuegu, eta, zuen ideiak bilduta, munduan zehar ibili gara, inspirazio bila, eta hornitzaile egokien bila. Lehengai bikainak, perfumegile handiak eta ontzi-diseinatzaileak gidari izan ditugu gure bilduma berri guztietan kalitate gorena lortzeko: *My Soul, Blue Shine, My Moment, Extra Time...*

BLUE SHINE

MY SOUL

EXTRATIME

my moment

# 1. Zuen iritzia entzuten dugu

Bilduma bat osatu aurretik, lehenengo urratsa da zuen beharrei kasu egitea. Perfumeriako Koberrikuntza Zentroan zuetako batzuekin elkartu gara, Gabonetan gure dendetan zer aurkitu nahi duzuen galdetzeko.





Proba itsuak egin ditugu gure espezialistekin Koberrikuntza Zentroan.




# 2. Bikaintasunaren bila bidaiatzen dugu

Sortzaile eta perfumegile ospetsuenen bila ibiltzen gara munduan zehar; kalitaterik onena lortzeko lehengaiak aukeratu zituztenen bila.



Ilias Ermenidis, Firmenicheko perfumegilea, *My Soul for him* fragantziaren sortzailea.



Philippe Paparella-Paris, Symriseko perfumegilea, *My Soul for her* fragantziaren sortzailea.

“Aldaketa asko egin dira, bilera asko, baina azken emaitza gustatu zaie, bai gure sorkuntza-taldeei, bai Mercadonakoei. Oso prozesu harmoniatsua izan zen; bezeroarekin elkarlanean, lan onak egiten ditugu beti”





# 3. Jatorrian hautatzen ditugun lehengai nobleekin lan egiten dugu

Perfume bat egiteak lantalde zabal bat koordinatzea dakar; lantalde horretan, kimikariak, ebaluatzaileak eta perfumegileak ditugu. Ebaluatzailearen lana funtsezkoa da prozesuan, perfumegilearekin batera egoten baita sorkuntzan, eta lotura egiten baitu sorkuntzaren eta azken kontsumitzailearen gustuen artean.



▲ Ilias Ermenidis, Ina Mexía ebaluatzailearen ondoan, Firmenich Parisen bulegoetan, *My Soul for him* fragantziaren ñabardurak probatzen.



◀ Calabriako bergamota piperbeltz arrosarekin eta izpiliku-ukitu batekin konbinatuta, *My Soul for him* lurrinaren bihotzerako ukitu sutsuak lortzen ditugu. Patxuliak, Haitiko vetiverrak, sandaloak eta zedro anbarrak osatzen dute perfume honen oinarria.





◀ Philippe Paparella eta Ilana Kahn ebaluatzailea, *My Soul for her* fragantzia sortzeko prozesuan. ▶



“Lore zurizko akorde bat osatu nuen, sambac jasmina oinarri hartuta; nerolia gehitu nion gero, laranjondoaren lore bizi eta iraunkorraren ukitua emateko.”





Kosmetikako espezialista,
*My Soul* itzal-paleta diseinatzen.

# 4. Denboran irauten duten bildumak diseinatzen ditugu

Koloreekin inspiratu gintuzuen: berdea, mihurari eta Gabonetako zuhaitzari omenaldia egiteko, eta urre-kolorea, jai hauek magiaz eta distira bereziz inguratzeko. Tonu horiekin ontzi sofistikatu bat sortu dugu, Gabon-lurrina barnean duena.




Sekretu hori gordetzeko, zenbait zirriborro diseinatu ditugu, gure sorkuntzak biltzeko ontzi apartak lortzeko.








Ontziak diseinatzeko zirriborroak eta kolore-gamak.







# 5. Zuekin partekatzen dugu azken emaitza

Bildumak sortu ondoren, gure desioa horiek partekatzea da, zuen iritziak jakitea eta gure usteak betetzen dituztela frogatzea. Produktu guztiak pertsona-profil zabal batek probatzen ditu; izan ere, badakigu gure bezeroen esperientziak gure jakinduria adierazten duela eta zoriontsu egiten gaituena haien nahiak betetzea dela.



Jakin nahi dugu ea emaitza espero duzuena den, itzalak ematea erraza egiten zaizuen, pintzelak makillajerako tresna erabilgarriak diren, koloreak egokiak diren edo perfumea sortzeko inspiratu gaituen lurrina berehala ezagutzen duzuen...






***My Soul*** azazkal-lakek Gabonetako argien distiraren pean egindako festaren dotorezia islatu nahi dute. Horiek emateko urre-koloreko pintzela oso erosoa da azazkalak zuk zeuk margotzeko, eta gorri-morea, gorria eta *glitter*ra zuen eskaeren emaitza dira.






***Blue Shine for him*** ukitu mediterraneoa duen perfume bat da, usain iraunkorra duena, fruta-, lore- eta egur-ukituetan oinarritua.

***Extra Time*** hiriko lurrin bat da, zu bezala, indartsua eta gaztea, mutilentzat zein neskentzat, lagunekin partekatzeko. Izan ere... *You really need a day between Saturday & Sunday.*








Izugarri gustatzen zaigu zuen etxera gonbidatzea, produktuak nola ematen dituzuen eta zuen azalean zer eragin duten kontatzea... Testura gustatzen zaizuen jakitea, emateko eraginkorrak eta erosoak diren jakitea...

Elkarrizketa, azterketa konparatibo eta erabilera-joera askoren emaitza da ***My moment;*** gure edertasun-unea sortzeko guztiok nahi dugun tarte lasai horri emandako erantzuna.



# MY SOUL



Festa hauetako makillajeen *look*ak bereganatu ditu *glitter*rak. MY SOUL, bilduma amestu bat, guztiak **liluratuta uzteko.**




Ezpainetako *pearl* barra, 01 zk. gorri metalizatua




Ezpainetako *pearl* barra, 02 zk. gorri-more metalizatua




Perla-koloreko itzalen paleta

Bilduma distiratsu honek sekretu batzuk ditu ezkutuan:

Ezpainetako bi *pearl* barra gorri eta gorri-moreek *glitter* estaldura dute, eta bristada modu homogeneoan banatzen dute, distira handienaren bila.

Argiztatzailea akabera argitsua duen hauts egosia da; horri esker, erresistentzia handiagoa du, eta itxura leun eta distiratsua ematen dio.

Esmalteen tapak erabilera errazten du. Ausartu zaitez probatzera!






Ezpainetako barra matea, 01 zk. gorri klasikoa




Itzal-paleta satinatuak




*Pearl* hauts argitzailea




Azazkal-esmaltea, 905 zk. *gliterra*




Azazkal-esmaltea, 903 zk. gorri-more perlakara




Azazkal-esmaltea, 904 zk. gorri perlakara




Ezpainak markatzeko arkatza, 401 zk. gorri matea

Begi-arkatza, 301 zk. beltza urre-koloreko *glitter*arekin.



# GOLDEN NIGHT

Ez da beharrezkoa Gabonak izatea jantzi distiratsu bat eta makillaje berezi bat jartzeko; gaur bertan egin dezakezu. Egun ederra da zerbait ospatzeko!

## BEAUTY TIP

Hauts argitzailea, aurpegiari eta gorputzari argia emateko sortua; kasu honetan, masailei eta bularraldeari. Aukerarik onena da hauts-brotxa batekin ematea, edo hatz-mamiekin, argi-puntuak lantzeko.



Hau darama modeloak: perla-koloreko itzalen paleta; begi-arkatza, 301 zk. beltza urre-koloreko glitterrarekin; ezpainetako *pearl* barra, 02 zk. gorri-more metalizatua; koloretea, 03 zk.; *pearl* hauts argitzailea; Longitud Xtrem betile-maskara; eta azazkal-esmaltea, 903 zk. gorri-more perlakara.

# Let's Celebrate!

Ezpain gorri mate dotoreak, ongi landutako makillaje-oinarria eta begirada zirraragarri bat. Aurtengo Gabonetan, premisa da arriskatzea, irabazteko.








Hau darama modeloak:

itzal satinatuen paleta; begi-arkatza, 301 zk. beltza urre-koloreko glitterrarekin; ezpainetako barra matea, 01 zk. gorri klasikoa; ezpainak markatzeko arkatz gorri matea; koloretea, 03 zk.; Longitud Xtrem betile-maskara; eta azazkal-esmaltea, 904 zk. gorri-more perlakara eta 905 zk. *gliterra*.

**BAZENEKIEN...?**

Begi-arkatzek testura krematsua dute, eta tapa ixten denean arkatzaren punta zorroztu egiten dute.



Summer



Autumn

# KOLORETAKO 4 URTAROAK



Spring



Winter

# Utz iezaiozu *MySoul* itzal-aukera koloretsuari lilura zaitzan, eta erakutsi harro zure makillaje-*lookak*, urte osoan.

Paletak hogei begi-itzal ditu, akabera mate, satinatu eta perlakara dutenak, urteko lau urtaroetan makillatzeko. Horretaz gain, aurpegi-argiztatzaile bat eta testura krematsuko begi-arkatz duoa du, marroi leuna eta beltz bizia. Ezin hobea, begirada erraz kokatzeko, marrazteko eta lausotzeko. Has dadila ikuskizuna!




***Autumn*** 4 urtaroen paleta: *Autumn* itzalak; begi-arkatz duoa; koloretea, 02 zk.; ezpainetako *Creamy* barra, 05 zk.; eta Longitud Xtrem maskara.

***Winter*** 4 urtaroen paleta: Winter itzalak; begi-arkatz duoa; koloretea, 02 zk.; ezpainetako My Soul barra matea, 01 zk., gorri klasikoa; eta Longitud Xtrem maskara.

***Summer*** 4 urtaroen paleta: Summer itzalak; begi-arkatz duoa; koloretea, 02 zk.; ezpainetako distira, 09 zk.; eta Longitud Xtrem betile-maskara.

***Spring*** 4 urtaroen paleta: *Spring* itzalak; begi-arkatz duoa; koloretea, 02 zk.; ezpainetako *Creamy* barra, 03 zk.; eta Longitud Xtrem maskara.

*My Soul* bildumako itzal-paleta kutxa misteriotsu batean sartuta dago, eta bitxiak jasotzeko edo makillaje-kutxa gisa erabil dezakezu. Aldean eramateko atera daiteke, eta edozein unetan apaindu, ispilua erabilita. Natura du inspirazio-iturri.

**Plus bat:** barruan zenbait *look* dituen liburuxka dauka, inspirazio gisa erabil dezazun.





Hau darama modeloak:
*My Soul* perla-koloreko itzalen paleta; *My Soul* begi-arkatza, 301 zk. beltza urre-koloreko glitterrarekin; ezpainetako *pearl* barra, 02 zk. gorri-more metalizatua; *My Soul* ezpainak markatzeko arkatz gorri matea; koloretea, 03 zk.; *pearl* hauts argitzailea; Longitud Xtrem betile-maskara; eta *My Soul* azazkal-esmaltea, 903 zk. gorri-more perlakara eta 905 zk. *gliterra*.

# Ukitu ikusezina

Kalitatezko brotxak erabiltzen ditugunean, berehala nabaritzen da emaitza larruazalean. Ikasi gehiago makillaje ona izateko tresna ahaltsuenari buruz.

**Badakizu...** Brotxen kirtena egurrezkoa da, eta, beraz, hobeto jasaten ditu kolpeak eta erorketak. Ukitu profesionala? Pintzelak manta polit batean daude, erabiltzeko garaian eskura izateko eta leku guztietara aldean eramateko.







Hemen dituzu zure apain-mahaian falta ezin diren pintzel batzuk; hala ere, eskuak ere erabil ditzakezu aurpegian zuzentzailea eta argitzailea emateko.

**Makillaje-pintzelen *MySoul*** mantan hauek daude:

**1** Hauts-brotxa, buru handiagoa duena, aurpegian hobeto zabaltzeko hauts solteak eta trinkoak.

**2** Makillajerako brotxak forma egokia du produktua aurpegian aplikatzeko.

**3** Itzalak difuminatzeko pintzela, begietako makillajea emateko.

**4** Itzal-pintzel alakatua, begirada markatzeko eta delineatzeko.


BLUE
SHINE
Lore-, fruta- eta egur-usainaren ukituak, intentsitate handiagoa eta hobeto finkatzen den perfumea, diseinu bakarrak...
Blue Shine distira egiteko sortu da.




**◀ *Blue Shine body***
*Bath soap*, freskatu zure azala *Blue Shine* lineako bainurako gelarekin; *body serum*-ak hidratatu eta indarberritzea egingo du, eta *body scrub* gorputz esfoliatzailea larruazal-mota guztietarako egokia da.

Amets egingo dugu? Kostaldeko ihesaldi batean dago inspiratua Blue Shine bilduma. Santoriniko teilatu urdinak, tonu urdin eta horiak dituzten zeramikazko baldosak, lihozko alkandorak, jutezko sandaliak edo itsasoaren presentzia ahaltsua buruan eduki genituen Mediterraneoaren espiritua hiri-testuinguru batera eraman nahi duten lurrinak sortzeko.




**▲ *Blue Shine for her***
*Eau de parfuma, body oila eta eau de parfum spraya.*




**◀ *Blue Shine for him***
*Eau de parfuma, after shavea eta eau de parfum spraya.*




# My moment

Prest zaude zure aurpegiko eta gorputzeko azalak behar bezala zaintzeko tartea hartzeko?




## body

Zaindu, hidratatu eta lurrindu. Gorputz esfoliatzaileak perla-hauts mikronizatua du, kamelia-olioz aberastua dago, eta azala hidratatzeko eta gaztetzeko balio du. Masaje zirkularren bidez ematen da, eta ur epelarekin urberritzen da. Ondoren, *body lotion* krematsuak sakon elikatzen du... Eta ihintza edo *pillow spray*-a, gorputza, ilea edo burkoa lainoztatzeko egokia.



## face

Hilabeteko programa kosmetiko aurreratua, kronokosmetikan oinarritua dago –larruazaleko zelulen adina aztertzen duen zientzia– , eta kontzentratu aktiboak eskaintzen ditu zahartzearen zantzuei aurre egiteko. Bi erritual: egunez, babestea eta konpontzea, eta gauez, elikatzea, suspertzea eta birsortzea.

### GOIZEKO EDERTASUN-ERRITUALA

1. URRATSA. Bota tonikoa kotoi batean, eta irristatu leun aurpegian, lepoan eta bularraldean.

2. URRATSA. Hartu krema dosi bat eta eman aurpegian, lepoan eta bularraldean. Eman masajea.

### GAUEKO EDERTASUN-ERRITUALA

1. URRATSA. Bota tonikoa kotoi batean, eta irristatu leun aurpegian, lepoan eta bularraldean.

2. URRATSA. Hartu krema-dosi bat eta eman aurpegian, lepoan eta bularraldean. Eman masajea.

3. URRATSA. Lehenengo saioa ACTIVE 1 KOLAGENO tantaz tantakoa erabiliz hasi, egunero, astebetez. Bota 8 tanta esku-ahurrean, eta nahastu kremarekin.

4. URRATSA. Eman produktua aurpegian, lepoan eta bularraldean, masaje leun bat eginez.




Segitu erritualarekin hurrengo asteetan, ACTIVE tantaz tantakoaren zenbakizko ordenan, astean bat erabiliz.



EXTRATIME


EXTRATIME
EXTRATIME
I REALLY NEED A DAY BETWEEN SATURDAY & SUNDAY
EXTRATIME
I REALLY NEED A DAY BETWEEN SATURDAY & SUNDAY
EXTRATIME
I REALLY NEED A DAY BETWEEN SATURDAY & SUNDAY
EXTRATIME
EXTRATIME
EXTRATIME
I REALLY NEED A DAY BETWEEN SATURDAY & SUNDAY

# OPARIAK EGITEKO *artea*

**Guztiak harrituta uzteko eta Gabonak bizitzeko prest?**

Kosmetika-, edertasun- eta fragantzia-produktuen hautaketa onena.





TRATAMIENTO TRATAMIENTO
REGENERADOR
SISBELA
I REALLY
NEED
SOUL
BLUE SHINE
fuerza


ELLA
ELLA
EAU DE PARFUM
POUR FEMME




**Soplo *Intense***
*Eau de toilette* oihalezko zakutxo batean, ihintz perfumatua eta nezeserra. Musketa lore hautseztatuaren usaina du.

**Emakumeak**
*Eau de parfuma, eau de parfuma* 20 ml. eta *body milka.* Ideia bat: Kaxa berriz erabil dezakezu...




# Ezagutu

## gure lurrinak: mimoz sortuak eta zuretzat pentsatutako ukitu aromatikoekin eginak




**Capítulo Floral Bouquet de Flores Blancas**
*Eau de toilette*a, bainurako gela eta *body milka.*



***Clutch body mist***
*Body mist*a eta zakutxo lurrinduna. Plus bat: gorde zakutxoa zure arropa artean, eta zure gogoko arropak perfumatuak izango dituzu.




***Ikiru Femme***
*Eau de toilettea, eau de toilettea* 20 ml. eta apar-gela.




**Soplo**
*Eau de toilette*a oihalezko zakutxo batekin, bainurako gela eta *body milka.*




# Oparitu edertasuna

Aurpegiko tratamenduetarako gure sortek adinaren zantzuei aurre egiten lagunduko dizute, eta zure azala egunez eta gauez birsortuko dute. Hautatu konbinazio perfektua.




**Elección**
*Eau de parfuma, eau de parfuma* 20 ml. eta krema hidratatzailea.




***Simply Flowers* - Azahar**
*Eau de toilettea, eau de toilettea* 20 ml. eta esku-krema.






**Sisbela Tratamendu birsortzaile sendotzailea**
Adinaren aurkako krema suspertzaile eta berregituratzailea, serum indartzailea eta lepo eta bularralderako krema trinkotzaile eta nutritiboa.



**24K *Gold Progress***
Aurpegirako eguneko babes-krema, gaueko krema multibirsortzailea eta begi ingurukoa.







***Bulgarian Rose***
Gorputz-olioa, dutxarako gela eta esfoliatzailea.




**9.60 *Woman***
*Eau de toilettea*, bainurako gela eta *body milka*.




***Intense Femme***
*Eau de toilettea.*

**Bainurako My Soul zakutxoa**
Bainurako gela, gorputz-krema eta bainurako gatzak.






**Eskuetako *moussea***
Eskuak garbitzeko *moussea*, urberritu beharrik gabe; eta *mousse* hidratatzailea, eskuak hidratatu eta leuntzeko.




***Beauty Magic Box***
Begi-ingururakoa, aurpegirako indartzailea, gorputz-olio perfumatua, bainurako aparra, eskuetako seruma, ezpainetarako esfoliatzailea, eskuak urberritu beharrik gabe garbitzeko gela eta fragantzia.



# Estiloz betetako 3 detaile, barruan *beauty* ezustekoak dituztenak




***Sweet Beauty Set***
*Eau de toilettea*, eta *lip balma* zure ezpainak hidratatu eta babesteko *gourmand* lore- eta fruta-ukitu atsegin batekin.




Egur-, zitriko- eta ur-ukitu freskoak... pertsonalitate bakoitzerako perfume bat.




***Misty Wood* Esencia Vital**
*Eau de toilettea*, bainurako gela, desodorantea eta *after shavea*.




**Vido Hombre**
Aurpegiko krema hidratatzailea, adinaren aurkako seruma eta begi-inguruetako krema.

***Intense Homme***
*Eau de toilettea.*




**Ikiru *Homme***
*Eau de toilettea, eau de toilettea* 20 ml. eta apar-gela.






**9.60 *Man***
*Eau de toilette*a, desodorantea eta gel-xanpua.




**Mr. Perfect**
*Eau de toilette*a eta dutxarako gela.




**Él**
*Eau de parfum*a, *eau de parfum*a 20 ml. eta gel-xanpua.



**Sesgo**
*Eau de toilette*a, *eau de toilette*a 20 ml. eta gel-xanpua.




**Enciende *for him***
*Eau de toilette*a, *eau de toilette*a 20 ml. eta gel-xanpua.




**Capítulo Marino – Notas Oceánicas**
*Eau de toilette*a, bainurako gela eta *after shave*a.

# *Hori nahi dut!*

Aurten etxeko txikiak ondo portatu direnez, hona hemen haientzako Gabonetako oparien gure eskaintza berezia.




**Fancy Nancy Clancy**
*Eau de toilettea*, tiara, giltzatakoa (borla) eta eranskailuak.




**Frozen II nezeserra**
*Eau de toilettea*, xanpua, bainurako gela, gorputzeko lozioa eta nezeserra.

## Gozatu haien irribarreekin

Opariak irekitzean, haien pertsonaia gogokoenak aurkituko dituzte hainbat *beauty kids* formatutan.




**Bob Esponja**
*Eau de toilettea* eta dutxarako gela.



**Frozen II**
*Eau de toilettea*, ezpainetako bi distira eta begi-itzal duoa.




**Hulk**
*Eau de toilette*a, dutxarako gela eta giltzatakoa.




**Guardianes de la Galaxia**
*Eau de toilette*a, bainurako gela eta metalezko kutxa.




**LOL *Surprise* *Beauty Set***
Giltzatakoa (borla), ezpainetako distira, ispilua, motots-goma, ile-eskuila eta azazkal-esmaltea.




**LOL *Surprise***
*Eau de toilette*a eta dutxarako gela.



***Eau My Unicorn***
*Eau de toilette*a eta bainurako gela (irudia).



***Eau My Unicorn***
*Eau de toilette*a, gorputz-krema eta *arkatz*-perfumea.

Orain, gure fragantziak miniaturan ere bai

## Zure esentzia gogokoena beti zurekin




COMOTÚ PLATA. Gizonentzako *eau de toilettea*, *eau de toilette* minia eta funtzio anitzeko krema. COMOTÚ ORO. Emakumeentzako *eau de toilettea*, *eau de toilette* minia eta hiru kandela. OUD NOIR. *Eau de parfuma*, *eau de parfum* minia eta nezeserra. ROSE NUDE. *Eau de parfuma* eta *eau de parfum* minia. COMOTÚ FUERZA. *Eau de toilettea*, *eau de toilette* minia eta gela. COMOTÚ AMOR. *Eau de parfuma*, *eau de parfum* minia 20 ml eta *body milka*.

# *Mini* BERTSIOAN




MY SOUL
FOR HER
MY SOUL
FOR HIM
MY SOUL